

Nola lagundu gure seme-alabei eskolako lanekin?

Ondorengo lerroetan, seme-alabei eskolako lanekin laguntzeko hainbat gomendio eta ideia proposatzen dira. Gomendio eta ideia horiek *Nola lagundu gure seme-alabei eskolako lanekin?* izeneko hitzaldirako landu dira eta dokumentu hau hitzaldi horren osagarria da.

Norabidea: Ikasteko autonomia garatzea

Gure seme-alabak 16-17 urtera iristean, nola nahi genuke jokatzea ikasketekin eta eskolako lanekin?

Galdera horri erantzutea ariketa ona da ondoko ondorio honetara iristeko:

Seme-alaben ikasteko autonomia garatzeak izan behar du gure helburua. Ikasteko jarrera, gaitasun eta jokabide egokiak izatea.

Norabide horretan, besteak beste, gurasook honako honetan lagundu dezakegu:

- Ikasteko ohitura batzuk lantzea (*A taula*)
- Ikasteko gaitasun eta teknika batzuk garatzea (*B taula*)
- Ikastera eta ikasketetara motibatzea (*C taula*)

Laguntzeko erabiltzen ditugun estrategiak egokiak diren edo ez ebaluatzeko, ondoko bi ideia hauek behintzat kontuan hartu:

- Eskolako lanak beraiek egin behar dituzte.
- Erabakitzen ikasi behar dute.

Eskolako lanak beraiek egin behar dituzte. Ikasgelan ikasi duten zerbait da eta praktikatu egin behar dute. Beraz, badakite egiten. Behin eta berriz egiteko gai ez diren eskolako lanak ekartzen badituzte etxera:

- Gu ez gara irakasleak. Beraz, ez dugu zertan edukiak ezagutu beharrik. Ez dugu horregatik gaizki sentitu behar.
- Egiteko gai diren eskolako lanak bidali behar dizkiete. Agian arazoa eskolan dago. Zergatik bidaltzen dizkiote, behin eta berriz, egiteko gai ez den eskolako lanak? Tutoreekin eta irakasleekin komunikazio on bat edukitzea oso garrantzitsua da gai honi begira.

Erabakitzen ikasi behar dute. Beraiek erabaki behar dute zer, noiz eta nola egin: zenbat denbora eman eskolako lan bakoitzarekin, zerekin hasi eta zerekin jarraitu, noiz dagoen behar bezain ondo, eta abar. Guk lagundu beharko diegu hori ikasten: 6-7 urterekin eskolako lanak antolatzen asko lagundu beharko diegu, denbora tarteak finkatzen, ordutegiak... Baina, poliki poliki urruntzen joan behar dugu eta beraiek hasi behar dute gauzak antolatzen, erabakitzen... Urruntze hori haur bakoitzaren kasuan ezberdina izango da: batzuekin oso azkar eta erraz egingo dugu, beste batzuekin mantsoago, batzuekin denbora tarteak finkatzen egin beharko dugu lan handia, beste batzuekin eskolako lanak antolatzen, ulermena lantzen...

Hori bai, kontuan izan behar ditugu ondorengo tauletako puntuak: ikasteko ohiturak lantzea, motibatuta aritzea... Erabiltzen ditugun estrategia guztiak ikasteko autonomia garatzeko bidean erabili behar ditugu, eta batzuetan edo batzuentzat oso aproposak izan daitezkeen estrategiak beste batzuetan eta beste batzuetan ez dira egokiak. Gure seme-alabak ezagutuz eta helburuak zein diren argi edukita, zein estrategia eta noiz erabili erabaki ahal izango dugu, eta batzuek eta besteak erabiliz eta frogatuz nahi dugun norabide horretara hurbiltzen ari garen ikusi ahal izango dugu.

A taula: Ikasteko ohitura batzuk lantzea	
Noiz ikasiko dute?	Ordutegiak eta denbora tarteak finkatzea. Ikasteko ordutegiak barneratu behar dituzte. Arautu edo eta adostu behar dugu zein denbora tarte eta noiz emango zaien eskolako lanei: egunero edo astean egun batzuetan, ordu erdi edo ordubete... 6-7 urterekin normalean ez dute egunero egin beharrik izango eta tarteak ere ez da oso luzea izango (astean bi-hiru egunetan eta 20-30 minutu gehienez), adinean aurrera doazen neurrian egunero edo ia egunero aritu beharko dute eta denbora gehiago ere beharko dute.
Zer ikasiko dute?	Eskolako lanak antolatzen ikastea. Zer egin behar dute eta noizko? Zenbat denbora eman gauza bakoitzari? Zein lehentasun jarri?...
Non ikasiko dute?	Ikasteko eta eskolako lanak egiteko ahalik eta leku egokiena eskaintzea. Beti leku bera izatea, argitasun egokia, altzariak... Gutxienez ez dezatela piztuta eduki inguruan telebista, irrati edo antzekorik.
Kontuan izan: egoera fisikoa, emozionala...	Kirola egin eta berehala gehiago kostako zaie kontzentratzea, gaixo egon eta hurrengo egunetan ere kostako zaie...

B taula: Ikasteko gaitasunak eta teknikak garatzea	
Ulermena	<p>Ikasi behar den hori ulertzea oinarrizkoa da. Horretarako:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Behin eta berri irakurri testua. Osoa edo zatika, ulertzen ez dituzten hitzak edo pasarteak aurkituz. - Ulertzen ez dituzten hitzen zerrenda egitea. Informazioa bilatzea. - Ulertzen dutena eta ez dutena azaldu diezaguten eskatzea. - Hipotesiak proposatzea: Emaitza ematea baino hobea izaten da askotan. Bide edo ondorio bat proposatzen diegu, eta, hortik abiatuz ideiak ulertzeko eta barneratzeko prozesua beraiek egin dezakete.
Memoria	<p>Hainbat gaitetan, ulertzeaz gain, memorizatu ere egin behar izaten da. Horretarako:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Irudikatzea: memorizatu beharrekoa irudiekin lotzea. - Loturak egitea: loturak egitea memorizatu beharrekoa errazago barneratzeko. - Memorizatu beharrekoen zerrendak egitea eta tarteka errepasatzea. - Momentu eta modu ezberdinetan gurekin errepasatu dezaten proposatzea: kantatuz, erritmo eta tonu ezberdinetan...
Irakurketa	<p>Ulermenarekin oso lotua. Irakurtzen duguna ez ulertzea eskola porrotarekin oso lotua dago. Irakurzaletasuna sustatzea eskolako lanetan laguntzeko modu bat da.</p>
Idazketa	<p>A aukera: Zuzentasuna lantzea, arauen arabera idaztea. Adinaren arabera zuzentasun maila egokia zein den jakin beharko dugu (irakasleek esango digute). Adinaren arabera normalak diren akatsak praktikarekin gaindituko dituzte. Akats <i>serioak</i> baldin badituzte ortografia modu kontzienteago batean landu beharko dugu: esanahia landu, kartulinetan idatzi, loturak bilatu...</p>
	<p>B aukera: Komunikazioa lantzea. Nahi duena adierazteko gai da? Ideiak ondo antolatzen al ditu? Arrazoiak bilatzeko eta garatzeko gai al da?...</p> <p>Komunikazioa garatzera begira hainbat gauza egin ditzakegu: idazten ari direna kontatzeko eskatzea eta ondoren irakurtzeko eskatzea, idazten ari direnari buruzko galderak egitea ideiak eta arrazoiak garatzera begira, testu bera modu ezberdinetara idazteko eskatzea (ipuin bat pertsonai ezberdinen ikuspegirik, adibidez)...</p>

<p>Testua oinarri duten eskolako lanak</p>	<p>Testua oinarri duten eskolako lanak egiteko ohiko prozedura:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Irakurtzea eta ulertzea: presarik gabe, osoa edo zatika, ulertzen ez duguna azpimarratuz... - Ideia nagusienak azpimarratzea - Laburtzea eta informazioa gordetzea: Eskemak, laburpenak, memorizatzea... - Informazioa berreskuratzea: Ahozko errepassoak, gaiari buruz idaztea, azterketak...
<p>Matematikak oinarri dituzten eskolako lanak</p>	<p>Matematika oinarri duten eskolak lanak egiteko ohiko prozedura:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Irakurtzea eta ulertzea: presarik gabe, osoa edo zatika, ulertzen ez duguna azpimarratuz... - Eman beharreko pausoak aurreikustea: zein eragiketa egin beharko diren, zein ordenetan... - Erregulak egitea - Erreparatzea: testua berriz irakurtzea, eragiketak pausoz pauso erreparatzea... <hr/> <ul style="list-style-type: none"> - Erregularen bat egitea ez badute lortzen, jarraitu dezatela besteekin eta itzuli daitezela aurrerago. Askotan hori nahikoa izaten da prozedurak barneratzea eta eragiketa egiteko gai izateko. - Horrela ez badute lortzen eragiketa egitea, ariketa azaltzeko eskatu. Azalpen horren bidez arazoa non duten ikusi ahal izango dugu, ariketaren zein puntu ez duten ondo ulertzen. - Hipotesiak proposatzea: Erregulak nola egin behar diren baldin badakigu, hipotesiak proposatzea. - Gaiari jarraipena egitea: Eskolan zuzendu duten galdetza, zalantza argitu duten argitzea, guri azaltzeko eskatzea, antzeko ariketaren bat proposatzea...

C taula: Ikastera eta ikasketetara motibatzea	
Ikastera motibatzea	<p>Lortu behar dugu seme-alabentzat ikastera naturala izatea: irakurtzea, informazioa bilatzea, zaletasunak lantzea, interesa edukitzea, kritikoak izatea...</p> <p>Horri begira, seme-alaben intereseak izan daitezkeen gaietan (eskolarekin zerikusirik izan edo ez), ikastera motibatzea: kuriosoak izatea sustatzea, interesa erakustea, informazio osagarria bilatzea, zerikusia duten gauzak egitea edo lekuetara joatea... Seme-alaben gustuak eta zaletasunak indartzea eta sustatzea.</p> <p>Hori egitea, ikasketekin laguntzeko modu bat ere bada, jarrera eta jokabide horiek barneratzen badituzte antzekoa egin baitezakete ikasketekin.</p>
Ikasketetara motibatzea	<p>Bi oinarri nagusi hauek behintzat zaintzen ahalegintzea:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Prozesuei ematea garrantzia - Errefortzu positiboak ematea <p>Momentuko emaitzek baino askoz garrantzi handiago dute prozesuek: Ari al dira ikasteko ohiturak barneratzen?, Motibatuta al daude?...</p> <p>Saiatu behar dugu gure ahaleginak horretara bideratzen, eta prozesuei buruzko lorpenak iristen diren neurrian errefortzu positiboak ematen: zorientzen, animatzen, sari sinboliko batzuk ematen... Epe ertain eta luzera, modu honetan lan egiteak askoz etekin hobeak eta iraunkorragoak emango ditu lorpenetan zentratuta edo eta zigor edo mehatxuen bidez laguntzen saiatzea baino.</p>